

Euskal Herriko Unibertsitateak berretsi egiten du Palestina herriarekiko elkartasuna eta irmoki salatzen dugu Israelgo gobernua Palestinan, Gazan, egiten ari den genozidioa. Lehendik ere nire agerpen publikoetan termino hau erabili izan badut konbentzimendu osoz, orain Nazio Batuen Erakundeak eratutako Batzordeak egin duen txostenean oinarritu gaitezke salaketa berresteko.

Jakingo duzuen moduan, EHUren Gobernu Kontseiluak, 2024ko apirilaren 24an onartu zuen manifestua bere jarrera irmoa adierazten Israelgo Gobernuaren indarkeria salatzeko. Horrekin batera hartu zen konpromisoa "Palestinan gertatzen ari diren gizateriaren aurkako krimenak berariaz gaitzesten ez dituzten Israelgo unibertsitate eta erakundeekin harremanak ez izateko eta hausteko".

Hain justu, horren harira zehaztu nahi dugu,

1. Euskal Herriko Unibertsitateak azken hilabeteetan 247 milioi euroko ikerketa proiektuetan parte hartzeari uko egin dio, biomedikuntza edo konputazio zientziak bezalako alorretan, batzuetan ikerketa taldeen eta ikertzaileen ekimenez eta besteetan errektoretza taldeak berak geldituta.
2. Berresteko moduan gaude EHUK ez duela Israelgo erakundeek parte hartzen duten ikerketa akordiorik sinatu ez eta berritu 2023ko azarotik.



3. Bestetik, errektoretza taldeak Palestinaren alde lan egiten duen EHUko mugimenduari proposatu dio lantalde berezitu baten eraketa. Aipatutako Gobernu Kontseiluaren adierazpen hark, halaber, Israelgo entitateek ere parte hartzen duten kontsortzioekin unibertsitate publikoak izan zitzakeen balizko lankidetzak-hitzarmenak berrikusteko lantaldea sortzea ere jaso zuen, egungo errektoretza taldeak kargua hartu aurretik. Horri erantzunez, uda aurretik proposatu genuen, Palestinaren aldeko unibertsitateko komunitatearen parte hartzea izango duen lantaldea eratzea. Izan ere, uste dugu beharrezkoa dela EHUn Palestinaren alde lanean ari diren taldeak ere batzordean izatea. EHU erakundeak berak duen tamainak lan zehatza egitea eskatzen du.

Precisamente, en cumplimiento de ese acuerdo de abril de 2024, propusimos antes del verano al movimiento universitario en favor de Palestina que participe en la comisión para la revisión de los acuerdos de colaboración que la universidad pudiera tener en consorcios en los que también participen entidades de Israel. Creemos que su participación es necesaria y por eso hemos hecho ese llamamiento.

Mientras tanto, estamos en disposición de afirmar que la EHU no ha firmado ningún acuerdo bilateral con Israel desde noviembre 2023 y que en los últimos meses la EHU ha renunciado a participar en proyectos de investigación que suman 247 millones de euros, en áreas como la biomedicina o ciencias computacionales.

Azken horren harira, ezinbesteko deritzogu Europar Batasuneko erakundeek, eta Espainiako Gobernuak, neurriak hartzea Israelgo unibertsitateak eta ikerketa zentroak eta erakundeak atera ditzaten ikerketa nahiz akademia eta kultura elkarlanerako diru-funtsetatik. Izan ere, ikertzaile israeldarrek Europako ikertzaileen baldintza



berberetan jasotzen dituzte diru-funtsak, Israelgo Gobernuarekin dagoen elkartzeko-akordioaz baliatuta. Ondorioz, gainerako ikerketa taldeak behartzen ditu euren lanean aurrerapauso handiak ematea ahalbidetuko lioketen laguntzetatik kanpo geratzera, ikuspegi etikoa, gizatasuna eta giza eskubideen defentsa lehenesten dutelako.

Es imprescindible blindar el trabajo de la comunidad investigadora y su participación en los proyectos y eso requiere inevitablemente la intervención de las entidades e instituciones que los financian. De ahí que hagamos un llamamiento tanto a la Comisión Europea y al Gobierno de España a que excluyan las universidades, centros de investigación e instituciones israelíes de los fondos destinados a la colaboración en investigación, académica y cultural.

Dirua jartzen duten erakundeak dira ezinbestean eskua hartu behar dutenak ikertzaile eta ikerketa taldeen lana blindatu eta proiektuetako partaidetzak arriskuan ez jartzeko. Eskaera hori bera bideratu berri diet CRUEko presidente Eva Alconi eta lehendakari naizen G9 unibertsitate aliantzako errektoreei.

EHUK dagoeneko egin du urratsa ildo horretan eta aurrerantzean enpresekin sinatzen diren hitzarmenetan giza eskubideak errespetatzeko eta armagintzarekin harremanik ez izateko klausula gehitzeko proposatuko dugu hurrengo Gobernu Kontseiluaren bileran. Eta euskal enpresekin indarrean dauden akordio edo harremanak ere berrikusiko dira komunitatearekin elkarlanean.

Gure komunitatetik harago, ari gara beste unibertsitate batzuekin lankidetzan, ildo berean. Eta *Universitaires avec Gaza* eta *Univ-Gaza* Frantziako taldeekin harremanetan dago EHU, Palestinako



ikertzaileak handik atera eta EHUrak ekartzeko aukera aztertzen, Frantziako nahiz Iparraldeko unibertsitateen eskutik.

Bestalde, Ikasleen eta Gizarte Konpromisorako Errektoreordetzak beka-deialdi berri bat onartuko du, espresuki Palestinako ikertzaileei ostatu eta mantenu laguntzak emateko. Helburua da, Nazio Batuen Erakundeko hainbat organok aitortu moduan, Palestinako ikertzaileen larrialdi-egoera eta muturreko kalteberatasuna aitortzea.

Para finalizar, quisiera recordar que la universidad está trabajando en otras iniciativas con el objetivo de seguir denunciando el genocidio que Israel está cometiendo contra el pueblo Palestino; entre otras, EHUgune está organizando un congreso que os presentaremos muy pronto. Del mismo modo, quiero trasladar nuestra firme voluntad para hacer todo lo que está en nuestras manos para trabajar por la reconstrucción del sistema universitario palestino y mostrar nuestra solidaridad a la Global Sumud Flotilla.